

2020-2021 IKASTURTERAKO PLAN EGOKITUA (Hezkuntza)



HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN Y DEPORTE

(2020ko abenduaren 1ean eguneratua)

Dekanotza Taldea

Aurkibidea

SARRERA	1
Lehen kontsiderazioak	1
IKASTEGIAN SARTZEKO ETA IRTETZEKO ARGIBIDEAK	2
PREBENTZIO NEURRIAK	3
AZP, IRIarentzako eta Ikasleentzako Dekalogoak	3
IRAKASKUNTZAREN PLANGINTZA	6
INFORMATIKA GELAK	7
PRAKTIKA MOTORREN IRAKASKUNTZA	7
PASILLOAK, IKD GUNEAk ETA IKASTEKO-JATEKO GELA	8
BULEGOAK ETA TUTORETZA ORDUAK	8
BILERAK	8
ZERBITZU ADMINISTRATIBOAK	8
ESPAZIOAK AIREZTATZEA	8
GARBIKETA PROZESUA	9
SORTZEN ARI DIREN KASUISTIKAK	9

SARRERA

Pandemia egoera batean jarraitzen dugu (COVID-19), eta horrek, zalantzarik gabe, beste ikasturte atipiko bat bizitzera eramango gaitu. Plan hori lanordu askoren eta ahalegin kolektibo handi baten emaitza da (Errektoretza Taldearekin koordinatuta), eta helburu argi bat lortzera bideratuta dago: prebentzio- eta babes-neurriak ezartzea, ikasleen, AZP eta irakasle eta ikertzaileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko, eta ikasturte berria ahalik eta ondoen garatu ahal izateko. Plan dinamikoa da, eta osasun, lan eta hezkuntzako agintariek eta UPV/EHUK ezarritako jarraibideen arabera eguneratuko da.

Egoera horretan egonda, ezinbestekoa da denok elkar zaintzen saiatzea. Egoera horrek prebentzio-neurriak lehenestera behartzen gaitu, batzuetan gure irakaskuntza-lanaren oinarri diren neurri pedagogikoen kaltetan. Beraz, elkartasuna, ulermena, kontzientzia kolektiboa eta, batzuetan, pazientzia (gure artean beti egon behar duten alderdiak, bestalde) ezinbestekoak izango dira 2020-2021 ikasturte hau behar bezala garatzeko.

Lehen kontsiderazioak

- **Hezkuntza eta Kirol Fakultateko kide guztien erantzukizuna da COVID-19ren transmisioa kontrolatzera eta murriztera bideratutako babes-neurriak zorrotz betetzen laguntzea.**
- Nolanahi ere, kontuan hartuta gomendioak eta neurriak aldatzen joan daitezkeela, gomendatzen da une oro kontsultatzea UPV/EHUK berariaz sortutako web-orria, non eguneratzen baita jarraitu beharreko informazio, neurri, protokolo eta abar guztia: <https://www.ehu.eus/es/covid-19>, bai eta Fakultatearen beraren web-orria ere.

ERAIKINEAN SARTZEKO ETA ATERATZEKO ARGIBIDEAK

- **Ikasleak ikastegian sartzea**

Ikasleak sarrera nagusitik sartuko dira ikastetxera. Pilaketak saihesteko, **mailaz maila sartuko dira ikasleak**, honako planteamendu honen arabera:

GOIZEKO ORDUTEGIA

Bigarren maila: klaseak egunero hasiko dira webgunean agertzen den ordutegia baino 10 minutu lehenago.

Hirugarren maila: webgunean agertzen den ordutegia mantentzen da.
Laugarren maila: klaseak egunero hasiko dira webgunean agertzen den ordutegitik 10 minutura.

ARRATSALDEKO ORDUTEGIA

Lehen maila: web-orrian agertzen den ordutegia mantenduko da. Lehen Hezkuntzako klaseak 14:00etan hasiko dira, eta Haur Hezkuntzakoak 14:30ean.

Ezinbestekoa da honako alderdi hauek kontuan hartzea:

- Ordutegiak puntualtasunez errespetatzea.
- Eraikina sartu aurretik, kontuan hartuta pertsona askok bat egingo dutela kanpoan, uneoro errespetatu behar da segurtasun-distantzia eta, logikoa denez, maskara jarrita eduki behar da uneoro.
- Ikastegira modu ordenatuan sartzea, segurtasun-distantzia une oro errespetatuz eta paraleloan zirkulatzea edo taldeak osatzea saihestuz.
- Korridoreetan, gure eskuineko hormaren ondoan zirkulatuko da, gure ezkerreko aldea zirkulazioaren kontrako norabiderako utziz, eta pertsonen arteko gurutzaketak saihestuz.
- Ikastetxeko seinaleak uneoro errespetatu beharko dira.

• **Ikastegitik irtetea**

Irteeretarako ere sarrera nagusiko ateak erabiliko dira.

• **Irakasleen sarrera eta irteera ikastetxean**

Irakasleak ere ate nagusietatik sartu eta irtengo dira. Kutsadurarik egonez gero, kontaktuak arakatzen lagunduko duen jarraipena egiteko, eta atea irekita badago ere, **txartela sarrerako atearen irakurgailu zilindrikotik pasatu behar da** (sartzean bakarrik egiten da eragiketa hori, irteera ate automatizatutik egiten baita).

PREBENTZIO NEURRIAK

AZPkoentzako, IRientzako eta IKASLEentzako DEKALOGOAK

AZPkoentzako dekalogoak

Prebentzioa da Covid-19aren aurka borrokatzeko modurik onena

1. Unibertsitateko kide guztien ardura da COVID-19aren hedapena kontrolatu eta gutxitzeko babes neurriak zorrotz betetzen laguntzea.
2. Unibertsitatera joan aurretik, etxean zeure burua aztertu behar duzu sintomarik duzun ikusteko. Sintoma hauetakoren bat baldin baduzu, >37^o-ko sukarra, eztul sikua, samako mina, arnasa hartzeko arazoak, usaimen eta dastamen falta... ez etorri unibertsitatera. Era berean, ez etorri gaixotasuna diagnostikatu badizute edo isolamenduan edo berrogeialdian bazaude sintomak dituen norbaitekin edo azken 14 egunetan gaixotasuna diagnostikatu dioten norbaitekin kontaktu estua izan duzulako, edo diagnosirako probaren emaitzaren zain bazaude. Unibertsitatean zaudela sintomarik igarri gero, isolamendu gelara joan eta ez izan harremanik inorekin; jarri harremanetan lehen arretarako zure osasun zentroarekin eta eman egoeraren berri ikastegian COVID-19aren ardura daukan pertsonari.
3. COVID-19arekiko kaltebera bazara, lanera etorri ahal izango zara, baldin eta zure egoera klinikoa kontrolatuta badago eta egoerak lanera itzultzea ahalbidetzen badizu, eta zorrotz gorde beharko dituzu babes neurriak. Lanera itzuliz gero, unibertsitateko osasun zerbitzuarekin jarri behar zara harremanetan (baldin eta lehendik harremanetan egon ez bazara) (medikua@ehu.eus), eta medikuaren ziurtagiria bidali.
4. Lantokira sartu aurretik eskuak hidroalkoholarekin garbitu behar dituzu (eraikinaren sarreran jarrita daude potoak) eta sarrerako irakurgailutik pasa behar duzu unibertsitateko txartela. Eskuak hidroalkoholarekin garbitu komunera joan aurretik eta ondoren.
5. Gorde beti segurtasun distantzia eta ikastegian/eraikinean jarritako seinaleei jarraituz ibili.

6. Maskara erabili behar duzu beti eta modu egokian (sudur-trenkadaren zatitik kokotseraino estalita aurpegia). Erabili ere, unibertsitateko gune guztietan erabili behar duzu (liburutegian, jantokian, kafetegian, ikasteko geletan... ere jantzita izan behar duzu), nahiz eta pertsonen arteko segurtasun tartea gordetzeko aukera izan.
7. Bulegoan beste inorekin egon zaitezke lanean, betiere, lanpostu batetik bestera gutxien dela 1,5 metroko distantzia baldin badago. Horretarako, leku batzuetan, altzariak mugitu ditugu eta, beste kasu batzuetan, txandak antolatu ditugu bulegoa erabiltzeko. Edozelan ere, lanleku guztiak ondo aireztatuta egon behar dira.
8. Ez utzi inori zure gauzarik, eta utzi behar izatekotan, ondo garbitu gel hidroalkoholikoarekin. Ondo garbituta izan behar dituzu zure gauzak: telefonoa, gailu elektronikoak... bai eta guztiek erabili beharreko gauza eta gainazalak.
9. Zenbat eta pertsona gutxiagorekin izan harremana, hobe: ahal dela erabili bitarteko telematikoak bilerak egiteko eta irakaskuntzakoak ez diren jarduerak egiteko. Edozelan ere, gomendagarria da laneko orduetan norekin egon zaren jasota izatea, behar izatekotan jarraipena errazteko.
10. Bete beti UPV/EHUK emandako jarraibideak eta ezarritako neurriak.

IRIentzako dekalogo

Prebentzioa da Covid-19aren aurka borrokatzeko modurik onena

1. Unibertsitateko kide guztien ardura da COVID-19aren hedapena kontrolatu eta gutxitzeko babes neurriak zorrotz betetzen laguntzea.
2. Unibertsitatera joan aurretik, etxean zeure burua aztertu behar duzu sintomarik duzun ikusteko. Sintoma hauetakoren bat baldin baduzu, >37^o-ko sukarra, eztul sikua, samako mina, arnasa hartzeko arazoak, usaimen eta dastamen falta... ez etorri unibertsitatera. Era berean, ez etorri gaixotasuna diagnostikatu badizute edo isolamenduan edo berrogeialdian bazaude sintomak dituen norbaitekin edo azken 14 egunetan gaixotasuna diagnostikatu dioten norbaitekin kontaktu estua izan duzulako, edo diagnosirako probaren emaitzaren zain bazaude. Unibertsitatean zaudela sintomarik igarri gero, isolamendu gelara joan eta ez izan harremanik inorekin; jarri harremanetan lehen arretarako zure osasun zentroarekin eta eman egoeraren berri ikastegian COVID-19aren ardura daukan pertsonari.
3. COVID-19arekiko kaltebera bazara, lanera etorri ahal izango zara, baldin eta zure egoera klinikoa kontrolatuta badago eta egoerak lanera itzultzea ahalbidetzen badizu, eta zorrotz gorde beharko dituzu babes neurriak. Lanera itzuliz gero, unibertsitateko osasun zerbitzuarekin jarri behar zara harremanetan (baldin eta lehendik harremanetan egon ez bazara) (medikua@ehu.eus), eta medikuaren ziurtagiria bidali.
4. Lantokira sartu aurretik eskuak hidroalkoholarekin garbitu behar dituzu (eraikinaren sarreran jarrita daude potoak) eta sarrerako irakurgailutik pasa behar duzu unibertsitateko txartela. Eskuak hidroalkoholarekin garbitu komunera joan aurretik eta ondoren.
5. Gorde beti segurtasun distantzia eta ikastegian/eraikinean jarritako seinaleei jarraituz ibili.
6. Maskara erabili behar duzu beti eta modu egokian (sudur-trenkadaren zatitik kokotseraino estalita aurpegia). Erabili ere, unibertsitateko gune guztietan erabili behar duzu (liburutegian, jantokian, kafetegian, ikasteko geletan... ere jantzita izan behar duzu), nahiz eta pertsonen arteko segurtasun tartea gordetzeko aukera izan.
7. Bulegoan beste inorekin egon zaitezke lanean, betiere, lanpostu batetik bestera gutxien dela 1,5 metroko distantzia baldin badago. Horretarako, leku batzuetan, altzariak mugitu ditugu eta, beste kasu batzuetan, txandak antolatu ditugu bulegoa erabiltzeko. Edozelan ere, lanleku guztiak ondo aireztatuta egon behar dira.

8. Ez utzi inori zure gauzarik, eta utzi behar izatekotan, ondo garbitu gel hidroalkoholikoarekin. Ondo garbituta izan behar dituzu zure gauzak: telefonoa, gailu elektronikoak... bai eta guztiek erabili beharreko gauza eta gainazalak.
9. Zenbat eta pertsona gutxiagorekin izan harremana, hobe: ahal dela erabili bitarteko telematikoak bilerak egiteko eta irakaskuntzakoak ez diren jarduerak egiteko. Edozelan ere, gomendagarria da laneko orduetan norekin egon zaren jasota izatea, behar izatekotan jarraipena errazteko.
10. Bete beti UPV/EHUK emandako jarraibideak eta ezarritako neurriak.

Ikasleentzako dekalogo

Prebentzioa da Covid-19aren aurka borrokatzeko modurik onena

1. Unibertsitateko kide guztien ardura da COVID-19aren hedapena kontrolatu eta gutxitzeko babes neurriak zorrotz betetzen laguntzea.
2. Unibertsitatean joan aurretik, etxean zeure burua aztertu behar duzu sintomarik duzun ikusteko. Sintoma hauetakoren bat baldin baduzu, >37^o-ko sukarra, eztul sikua, samako mina, arnasa hartzeko arazoak, usaimen eta dastamen falta... ez etorri unibertsitatean. Era berean, ez etorri gaixotasuna diagnostikatu badizute edo isolamenduan edo berrogeialdian bazaude sintomak dituen norbaitekin edo azken 14 egunetan gaixotasuna diagnostikatu dioten norbaitekin kontaktu estua izan duzulako, edo diagnosirako probaren emaitzaren zain bazaude. Unibertsitatean zaudela sintomarik igarri gero, isolamendu gelara joan eta ez izan harremanik inorekin; jarri harremanetan lehen arretarako zure osasun zentroarekin eta eman egoeraren berri ikastegian COVID-19aren ardura daukan pertsonari.
3. COVID-19arekiko kaltebera bazara, zure medikuak emandako prebentzio neurriak bete behar dituzu. Horrez gain, Ikasleen Zuzendaritzarekin (ikasle-zuzendaritza@ehu.eus) jarri behar zara harremanetan eta medikuaren ziurtagiria aurkeztu beharko duzu. Zure egoera aztertuko dute, eta egoki iritziz gero, ezarriko zaizkizun neurri berezien berri emango dizute. Arreta berezia eskainiko diegu dibertsitate funtzionala daukaten edo hezkuntzarako laguntza berezia behar duten ikasleei; izan ere, beharbada, egokitzapenak beharko dituzte, hala nola, laguntzailea edo baliabide materialak edo laguntza teknikoak. Ikasle horien laguntzaileek prebentzio orokorreko arauak bete behar dituzte, eta, beraz, gainerako pertsonetikiko distantzia fisikoa gorde behar dute.
4. Ez eman musurik ez besarkadarik; mugatu kontaktu fisikoa, eta gogoratu oihukatzeak, abesteak edo putz egiteak areagotu egiten duela birusaren tantak urrutira bidaltzeko arriskua.
5. Maskara erabili behar duzu beti eta modu egokian (sudur-trenkadaren zatitik kokotseraino estalita aurpegia). Erabili ere, unibertsitateko gune guztietan erabili behar duzu (liburutegian, jantokian, kafetegian, ikasteko geletan... ere jantzita izan behar duzu), nahiz eta pertsonen arteko segurtasun tarteak gordetzeko aukera izan.
6. Gorde beti segurtasun distantzia eta ikastegian jarritako seinaleei jarraituz ibili.
7. Gelan sartu aurretik eskuak garbitu. Komunera zoazenean, eskuak hidroalkoholarekin garbitu sartu aurretik eta irten ondoren.
8. Gomendio da gelan beti leku berean jesartzea, horrela, kutsatzerik izanez gero, ahalik eta lagun gutxien izateko harreman eremuan. Debekatuta dago mahaiak eta aulkiak lekuz aldatzea, ez bada horretarako arrazoiren bat dagoela, eta egitekotan, irakasleari eman behar zaio berri.
9. Ez utzi inori zure gauzarik, eta utzi behar izatekotan, ondo garbitu gel hidroalkoholikoarekin. Ondo garbituta izan behar dituzu zure gauzak: telefonoa, gailu elektronikoak, eta abar.
10. Bete beti UPV/EHUK emandako jarraibideak eta ezarritako neurriak.

IRAKASKUNTZAREN PLANGINTZA

Fakultateko Batzordeak 2020ko uztailearen 17an onartutako Irakaskuntza Egokitzeko Plana errespetatuko da. Irakaskuntza bimodalaren planteamenduari jarraituz, irakasgaietan irakaskuntza presentziala eta telepresentziala konbinatuko dira. Horretarako, kasu gehienetan, taldeak bitan banatuko dira eta asteko plangintza bat egingo da: taldearen erdiak aurrez aurreko irakaskuntza jasoko du astebetez, eta, hurrengo astean, ez da ikastetxera joango, baina eskolak etxetik jarraitzeko edo modu telepresentzian lan egiteko aukera izango du. **Ikasle bakoitzak esleitzen zaizkion asteetan joan behar du, eta ezin izango da inola ere joan esleitu gabeko asteetan.**

Edukiera-arazorik badago eta, nahiz eta taldea ikasle guztien artean banatu ez, ikasturte naturala egingo duten ikasleek presentzialtasuna lehenetsiko da; hau da, ikasgaia errepikatzen ari diren ikasleek ikasgaiak telematikoki jarraitzeko aukera izango dute. Irtenbide hori nahikoa ez bada, delako irakasgaia (edo irakasgaiak) bide telematikoz planteatzeko aukera baliatu beharko d(ir)a.

Aire zabaleko saioak egingo diren kasuetan (baratze ekologikoa, kirol-praktikak edo bestelako dinamikak), Antolamendu Akademikoko Dekanordeari (arantzazu.rodriquez@ehu.eus) eta Dekanotzako Idazkariari (gerardo.mendazona@ehu.eus) jakinarazi beharko zaie.

Gurutzatzeak saihesteko, ikasgelara sartzean, ikasleak esertzeko lekuak betetzen joango dira atzetik aurrera; gelatik aurrealdetik atzeraka aterako dira. Ez da gomendatzen ikasgelan talde-lana egitea; talde-lanak egitea errazten duten online lan-tresnak erabiltzea gomendatzen da.

Halakorik egiten bada, maskara nahitaez erabiltzea eta pertsonen arteko distantzia errespetatu behar da; gainera, moduluko edo minor irakasgai guztietarako lantalde berberak sortzea gomendatzen da, eta lau kidekoak izatea gomendatzen da. Hobe da lantaldeak ikasleek beraiek ezartzea, haien bizilekuak, garraioa, online lan egiteko aukera eta abar kontuan hartuta, baina ahaleginak egingo dira irakasgai guztietan berdinak izan daitezen. Hori moduluetatik edo minorretatik koordinatzea gomendatzen da.

Irakasleak lehenengo ikasle-ilararekiko distantzia gutxienez 1,5 m-koa izatea zaindu beharko du. Horretarako, arbeletik hurbil egongo da beti, horretarako mugatutako espazioan.

Kutsadurarik egonez gero, kontaktuak arakatzen lagun dezakeen jarraipena egiteko, **beharrezkoa da ikasleek zerrenda pasatzea saio bakoitzean**; irakasleak arduratuko dira zerrenda horiek gordetzeaz, eta, behar izanez gero, ikastetxeko COVID arduradunak eskatu ahal izango ditu, kutsatze-egoeretan kontaktuak bilatzea errazteko. Halaber, eskolen jarraipena errazteko, eta gerta daitezkeen inguruabarrak kontuan hartuta, irakasleek eskolak grabatzea gomendatzen da.

Ebaluazioari dagokionez, **irakasleek ahal dela etengabeko ebaluazioa egin behar dute, ahal den neurrian azterketa-deialdirako ezarritako data ofizialean proba batekin osatzea saihestuz.** Ikasleei etengabeko ebaluazioa egitea gomendatzen zaie.

IKASGELAK ERABILTZeko PROTOKOLOA

1. Irakasleak Atezaintzan gelako giltza eskatuko du eta gela irekiko du; ikasleen sarrera ordenatua zainduko du eta gogoratuko die eserlekuak atzekaldetik betetzen joatea.
2. Saioan egin beharreko aireztatze epeldiak zainduko ditu (ikus 8. orrialdea) eta, saioaren bukaeran, leihoak irekita geratzen direla ziurtatuko du.
3. Irakaslea gelatik aterako den azkena izango da; gela itxiko du eta giltza Atezaintzan bueltatuko du, hurrengoak hartu ahal dezan.

INFORMATIKA GELA

Informatika gelak irakaskuntzarako bakarrik erabiliko dira, edukiera kontrolatzeko. Bertan esertzeko lekuak erabiliko dira eta edukiera errespetatuko da uneoro. Ikasle bakoitzak bere postua higienizatu beharko du uztean.

PRAKTIKA MOTORREN IRAKASKUNTZA

Esparru osoan, eta eraikinen barrualdean zein kanpoaldean, maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da une oro irakasle eta ikasleentzat, praktika fisiko bizia egitea ezinbestekoa denean izan ezik (21/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 6.2 artikulua), honako baldintza hauetan:

- Gimnasioan, jarduera fisiko bizia egitea ezinbestekoa delako maskararik erabiltzen ez bada, gutxienez 2 metroko segurtasun-distantzia bermatu beharko da, bai eta aireztapen-baldintza onak ere, eta instalazio bakoitzaren protokoloetan ezarritakoa bete beharko da uneoro.
- Taldeko kirola aire zabalean edo espazio itxietan egiten denean, maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da, partidaren edo lehiaketaren unean edo jarduera fisiko bizia egitea ezinbestekoa denean izan ezik.
- Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak agindutako maskara nahitaez erabiltzeari buruzko zehaztapenak bete beharko dira (helbide honetan kontsulta daitezke: https://www.euskadi.eus/por-ti-por-mi-siempre-mascarilla/web01-a3korona/es/#tab_item4288)

Jarduera fisikoen irakaskuntza-ikaskuntzan, jarduera fisiko bizia ezinbestekoa den uneetara ekarri edo murriztu beharko da, ohiko plangintza egokituz.

Fakultatetik kanpo eta kanpoko kirol-instalazioetan, indarrean dagoen araudia eta instalazio bakoitzaren protokoloak beteko dira.

Eskolen antolaketari dagokionez, ahal den guztietan 10 ikasle inguruko taldeetan antolatuko dira eskolak, eta ahalik eta harreman txikiena izaten saiatuko dira. Irakaslea ahalik eta ikasle gutxienekin ere saiatuko da zuzeneko harremana izaten, bai taldeari jarraibideak helarazteko, bai erakustaldiak egiteko, etab.

Ahal den guztietan, kanpoko espazioetara eramango dira jarduerak.

Saioa prestatzeko, antolatzeko, aztertzeko eta bateratzeko denbora murriztea gomendatzen da, eta eskola magistraletara eramatea, zereginen, eGelaren eta abarren bidez. Ahal den neurrian, ikasleen arteko harremana murrizten eta materiala partekatzen saiatuko da. Materiala eta espazioa ikasleek berek higienizatu behar dituzte, taldea aldatzen den bakoitzean edo talde bereko beste ikasle batek erabili behar duen bakoitzean. Horretarako, desinfektatzailez bustitako papera erabili behar dute. Materiala eta kontaktua izan duten eremuak desinfektatu beharko dituzte (horma-barrak edo espalderak, etab.)

Kirol-instalazioetara sartzean nahiz handik irtetean, derrigorrezkoa da eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitzea. Aldageletan eta dutxetan edukiera errespetatu behar da.

PASILLOAK, IKD GUNEAK ETA IKASTEKO-JATEKO GELA

Oraingoan, IKD guneak desgaituta geratzen dira, ikasteko gela eta jangelarekin gertatzen den bezala (erreprografia-zerbitzuaren aurrean). Pasilloetan egoteko denbora ahalik eta txikiena izan behar da. Irakasle eta ikertzaileen korridoretara edo dekanotzara sartzeko, tutoretza presentzialen batera joan behar da (tutoretzak telematikoki egitea gomendatzen da), edo taldeko ordezkarien bidez, dekanotzarekin zerbait kudeatu behar bada.

BULEGOAK ETA TUTORETZA-ORDUAK

Bulegoa beste pertsona batekin partekatzen duen irakasle eta ikertzaileak ahalik eta denbora laburrenean egingo du bat. Bat etorri behar dutenean, maskara erabili beharko dute. **Tutoretza presentzialak ez egitea gomendatzen da.** Egiten badira, maskara erabili beharko da eta segurtasun-distantzia errespetatu beharko da. Bi irakaslerentzat prestatutako bulegoetan ezin izango da tutoretzarik egin bi irakasleak bertan badaude; beheko solairuan (informatika-gelaren aurrean) dauden bulego kolektiboan kasuan, ezin izango da tutoretza presentzialik egin bi irakasle baino gehiago badaude.

Irakasleen eta Ikertzaileen Errektoreordearen jarraibideak zehazten duenez, **abenduaren 1etik aurrera tutoretzak egiteko argibide berriak ezartzen dira:**

- Irakasle eta ikertzaileek tutoretzak *online* eta UPV/EHUtik kanpo egin ahal izango dituzte.
- Era berean, aurrez aurre egin ahal izango dira, betiere alde aurretik hitzordua eskatuta eta indarrean dauden prebentzio-, segurtasun-, osasun- eta higiene-neurriak uneoro betez.
- Urrutitik eta modu sinkronoan egiten badira, hau da, ikasleekin komunikazioa ezarriz irudia eta/edo soinua urrutitik eta denbora errealean transmititzeko metodoen baten bidez (aplikazio informatikoak,...), gutxienez irakasleek tutoretzetarako ezarritako egun eta orduetan egin beharko dira. Gomendagarria da ikasleek alde aurretik irakasleari jakinaraztea noiz egingo duten konexioa tutoretzarako ezarritako ordutegiaren barruan.
- Urrutitik eta modu asinkronoan egiten badira (posta elektronikoa edo antzekoa), hori ez egiteko salbuespenezko inguruabarrik ez badago, irakasleek, gehienez ere, kontsulta egiteko programatutako hurrengo tutoretzan erantzun beharko dute, betiere kontsulta posta instituzionalaren edo eGela plataformaren bidez egin bada.

BILERAK

Aurrez aurreko bilerak saihestuko dira.

ZERBITZU ADMINISTRATIBOAK

Administrazio-zerbitzuetan, irakasle eta ikertzaileen arreta telematikoki egingo da ahal dela. Horietan fisikoki egotea beharrezkoa bada, aldeztatik deituko da idazkaritzaren okupazioa zein den jakiteko.

Administrazio-zerbitzuetan, ahal dela, telematikoki emango zaie arreta ikasleei, osasun-egoerak hobera egiten duenean izan ezik, egoera hori normaltasunera itzuli ahal izango baita. Bertan egotea beharrezkoa bada, aurrez hitzordua eskatuta erantzungo da, posta elektronikoz (secretaria.eum-vi@ehu.eus) edo telefonoz (945013268-945014169).

ESPAZIOAK AIREZTATZEA

Laneko espazioen erabiltzaileek aireztapen egokia bermatuko dute.

Atezaintzako langileek espazio komunak eta zirkulazio-eremuak behar bezala aireztatzen direla bermatuko dute. Guztion ardura da pilaketarik ez gertatzea eta distantzia fisikoari eustea.

Gelen kasuan, ahal den neurrian, leihoak uneoro irekita izatea komeni da. Horrela ez bada, klaseko 50 minutu igaro ondoren, leihoak 10 minutuz irekiko dira. Horrek esan nahi du ordubeteko moduluek ez dutela eraginik izango; izan ere, eskola amaitzean aireztapena egiten dute; ordu eta erdiko eta bi orduko moduluetan aireztapen bat egingo da (10 minutukoa) 50 eskola-minutu igarota, eta beste bat hura amaitzean; bi ordu eta erdiko moduluetan, bi aireztapen-aldi egingo dira eskolak irauten duen bitartean, eta beste bat amaitzen denean.

GARBIKETA PROZESUA

Ikasgela guztiak goizeko lehen orduan garbitu eta desinfektatu egiten dira. Behin saioak hasita, horien arteko atsedendialdiak ahalbidetzen badu, mahaiei eta aulkiei errepaso bat ematen zaie; ordu erdi baino gehiagoko tartea dagoenean, zorua ere garbitzen da. Honez gain, ikasgela guztien barruan desinfektatzailea aurki daiteke. Ikasgela espezifikotan gel hidroalkoholikoa banatzeko gailua aurki daiteke.

SORTZEN ARI DIREN KASUISTIKAK

COVID-19 egoera honetan kasuistika ezberdinak gertatzen ari dira; jarraian zehaztuko ditugu horietako batzuk:

PCR proba egin behar badigute edota horren emaitzaren zain bagaude: kautelaz ez da Fakultatera etorri behar; **tarte horretan saioak telematikoki eskaintzea eskatzen da.**

Prebentzio Zerbitzuaren agiriak (zaugarritasun egoeran dauden pertsonak): zenbait kasutan agiriak diote irakasleak ezin dituela aurrez aurreko klaserik eskaini, baina gainontzeko jarduerak normaltasunez egiten jarrai dezakeela. Kasu hauetan **saioak telematikoki eskaini behar dira.**

Dokumentu hau gertatzen diren aldaketen arabera eguneratuko da.